

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

KONTROL MOZIOA

Udaltzaingaien jasotako entrenamendu arropa dela eta

EH BILDU udal taldeko zinegotzi Reyes Carrere Zabalak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, udaltzaingaien jaso duten entrenamendu arropari buruz, Udalbatzan azter dadin. Mozioa Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordeak joan den abenduaren 9an egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFICACIÓN

ERNE sindikatuaren bidez, jakin dugu udaltzainen hirugarren deialdi bateratua gainditu eta Arkauteko Polizia eta Larrialdietako Akademian derrigorrezko prestakuntza ikastaroa egiten ari diren Donostiako Udaltzaingorako 62 izangaiek ez dituztela jaso arauzko uniformeak eta proba fisikoak egiteko kirol arropa, eta, gainera, banatutakoa guztiz desegokia dela.

Prestakuntza ikastaroa azaroaren 11n hasi zen. 36 udalerritako 300 bat ikaslek parte hartzen dute ikastaro horretan, eta horien artean Donostiakoak ere badaude. 30 egun baino gehiago igaro dira ikastaroa hasi zenetik, eta izangaiei uniformeak eman ez dien udal bakarria Donostiakoa da. Beraz, kaleko jantzita joan behar dute, akademiaren barne arauak urratuz eta irudi tamalgarri bat emanez.

Sindikatu horrek harridura eta haserrea adierazi ditu protesta idazki batean: *“Sare galtza estu eta erdi garden batzuk, galtza motz-motz batzuk (erabat desegokiak) eta S neurriko elastiko batzuk (14 urteko neskenentzako modukoak) eman dizkiete emakumeei. Kontu horrek haserretu egin ditu emakume guztiak, eta gainerako lankide guztien babesa eta elkartasuna ere eragin du. Hala, mutilek ere uko egin diote emandako kirol arropa janzteari, harik eta arazoari konponbidea eman arte. Akademiak berak ere arropa hori ez janzteko esan die; hortik atera kontuak zeinen larria den gaia!”*.

Era berean, sindikatuak dio mutilak ere ez direla oso ondo atera, atletismoko galtza motz batzuk eman dizkietela eta galtzontzilloak atera egiten zaizkiela-eta praken azpitik. Hala ere, "zortea" izan dutela diote, haien txandal praktikak "normalak" direla eta.

Sindikatu arduradunek arazoa berehala eta egoki konpontzeko exigitu dute, jakina; uste dute erabat sexista dela eman dieten arropa; eta, hori dela eta, Berdintasun Bulegoak ere esku hartzea espero dutela.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Ez dago ulertzerik udal langile horiek garaiz ez jaso izana prestakuntza egiteko beharrezkoa eta nahitaezkoa den arropa, deialdi hori 2019ko apirilaren 15ean argitaratu baitzen EHAAn:

“EBAZPENA, 2019ko apirilaren 5ekoa, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiarena, Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalako agente kategorian txanda ireki bitartez sartzeko hautaketa-prozedurako deialdia egiteko dena”.

“Deialdia Abanto-Zierbena, (...), Donostia-San Sebastián, Derio (...) Udalek Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin izenpetutako kudeaketa gomendioaren hitzarmenekin bat etorri egiten da eta deialdia egiteko, honako hauetan xedatutakoa hartu da aintzat: Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeke ekainaren 28ko 15/2012 Legea; Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legea; eta Euskal Herriko Poliziaren hautaketa- eta prestakuntza-araudia onartzen duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretua, eta horren gainean egindako aldaketak”.

Aldizkarian jartzen duenez, 49 lanpostu Donostiako Udalerako dira; lanpostu horiek 2. (euskara) hizkuntza eskakizuna dute ezarria, eta derrigortasun data iraungia”. Gero, 62 plazara igo zen kopuru hori.

Beraz, justifikaezina da gobernuak aurreikuspenik ez egitea kontu honen inguruan, eta are ulertezinagoa da inplikatuaren kexei eta ERNE sindikatuaren salaketa publikoari ez erantzutea.

Batzordean horri buruzko interpelazioa eginda, Gobernuko ordezkariak erantzun zuen akats bat izan dela horniduran eta aitortu zuen desegokia dela emandako arropa. Hala ere, emandako azalpenetan ez da argi geratu nork erabaki duen gizona koei eta emakumezkoari arropa desberdina ematea, eta zergatik, “kasualitatez”, gizonak txandal praka batzuk jaso dituzten eta emakumeek sare galtza estu batzuk, irizpide argiro sexista bat erabiliz; horrez gain, ez da hartu aurreikuspen falta horren erantzukizuna; eta ez da argitu zergatik ez den urgentziatzeko irtenbide egoki bat eman.

Kontua da kontrol mozio hau sartu genuen unean Donostiako udaltzaingaien oraindik ere ez zutela behar den uniformeak.

Horiek horrela direla, hauxe da EH Bildu udal taldearen **KONTROL MOZIOA**:

- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari berma dezala udal langileek beren lana egiteko edo prestakuntza jasotzeko jantzi egokiak izatea, eta udaltzainen kasuan arauzko uniformeak izatea, hala behar denean.



EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldeko zinegotzia